

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Lurzatiak alokatzeko enkantea

Udal honek, 2019ko urriaren 11n egindako bilkuran, onetsi zuen Erriberagoitiko Udalaren 3 poligonoko 478, 479, 480, 481, 482 eta 483 katastro zenbakiko lurzatiaren alokatzea arautuko duten klausula ekonomiko-administratiboaren agiria.

Onetsitako agiria jendaurrean egongo da 8 egunez, iragarkia ALHAOn argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazio horiek udalak ebatziko ditu eta, halakorik aurkezten ez bada, agiria behin betiko onetsita geratuko da.

Aldi berean, lizitazioa iragartzen da. Dena den, lizitazioa atzeratu egingo da hala behar de-nean, administrazio klausula berezien agiriaren aurka erreklamaziorik aurkeztuz gero.

1. ERAKUNDE ESLEITZAILEA.

a) Erakundea: Erriberagoitiko Udala.

2. KONTRATUAREN XEDEA.

a) 3 poligonoko 478, 479, 480, 481, 482 eta 483 lurzatiak alokatzea.

b) Kokalekua: Erriberagoitia (Pobes).

c) Errentamendu aldia: 5 urte luzagarri.

3. IZAPIDETZEA, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO ERA.

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Izapidetzeko era: lehiaketa.

4. ALOKAIRUAREN ZENBATEKOA

Gutxienez 1.200,00 eurotan ezarri da (BEZa, zergak eta gastuak barne hartu gabe).

5. BERMEAK.

a) Behin-behinekoa: 180,00 euro.

b) Behin betikoa: 5 urteko esleipen zenbatekoaren ehuneko 5.

6. AGIRIAK ETA ARGIBIDEAK ESKURATZEA.

a) Herria eta posta kodea:

Erriberagoitiko Udala.

Araba 2 - 01420 – Pobes.

Telefonoa: 945 36 20 21

Faxa: 945 36 20 07

Posta elektronikoa: aralta.luis@ayto.araba.eus

Web orria: www.erriberagoitia.com

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: iragarkia argitaratu ondorengo hogeita seigarren eguna.

7. ESKAINTZAK AURKEZTEA.

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: iragarkia argitaratu ondorengo hogeita seigarren eguna. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo jaieguna izanez gero, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: klausula administratiboen agirian aipatzen direnak.

c) Aurkezteko lekua:

Erriberagoitiko Udala.

Araba 2 - -01420 – Pobes.

8. ESKAINTZAK IREKITZEA.

Tokia:

Erriberagoitiko udaletxeko osoko bilkuren aretoa.

Herria: Araba 2 - 01420 – Pobes.

Eguna:

A gutun azala, jendeari itxitako bilkuran.

B gutun azala, deitutakoan, egun hori larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

C gutun azala, aurrez deialdi publikoa eginda.

9. IRAGARKI GASTUAK: esleipendunak ordainduko ditu.

Pobes, 2019ko urriaren 14a

Alkatea

JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ